



**ORIOKOUNDALA**

**AKTA**

# Udalbatzarraren ezohiko bilkura

**EGUNA:** 2011ko apirilaren 6a, asteazkena

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 19:00      **BUKATZEKO ORDUA:** 19:25

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Jon Redondo Lertxundi

**Zinegotziak**

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez de Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

## **AZTERGAI-ZERRENDA**

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren honako bilkuretako akten zirriborroak: 2010eko maiatzaren 25eko eta urriaren 26ko ohiko bilkuretakoak eta 2010eko uztailaren 6ko eta urriaren 5eko ezohiko bilkuretakoak.
- 2.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari. Plan Nagusia honako hauek idatzi dute: Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalba arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak.
- 3.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Antilla Hondartzako 1. zenbakidun eraikina okupatzeko kontzesio administratiboaren kontratua, bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko.



- 4.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko Antilla Hondartzako 2. zenbakidun eraikina okupatzeko kontzesio administratiboari buruz, bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko.
- 5.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Antilla Hondartzako 3. zenbakidun eraikina okupatzeko kontzesio administratiboaren kontratua, bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko.
- 6.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko bide publikoen udal inbentarioari.

## Esan-eginak

### **1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN HONAKO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK: 2010EKO MAIATZAREN 25EKO ETA URRIAREN 26KO OHIKO BILKURETAKOAK ETA 2010EKO UZTAILAREN 6KO ETA URRIAREN 5EKO EZOHICO BILKURETAKOAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** Udalbatzarraren honako bilkuretako aktak: 2010eko maiatzaren 25eko eta urriaren 26ko ohiko bilkuretakoak eta 2010eko uztailaren 6ko eta urriaren 5eko ezohiko bilkuretakoak.

### **2.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIARI. PLAN NAGUSIA HONAKO HAUEK IDATZI DUTE: MANU ARRUABARRENA ETA SANTIAGO PEÑALBA ARKITEKTOEK ETA MIKEL IRIONDO ABOKATUAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza, talde mistoaren izenean, eta adierazten du, alde batetik, nahiko azkar tramitatzen ari dela Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia eta bere buruari galdetzen diola ea ez ote litzatekeen egokiago gai honen tramitazioa hurrengo agintaldirako uztea; bestalde, adierazten du eskerrak eman nahi dizkiola plana idatzi duen taldeari, gaiari buruzko zalantzak-eta argitzeko behar diren bilera guztiak egiteko erakutsi duten prestutasunagatik. Gainera, Joseba Goiburuk proposatzen du tresna urbanistiko honen jendaurreko epea luzatzea 2011ko ekainaren bukaera ingurura arte, bere talde politikoa ez dagoelako ados Plan Nagusian jasotako aurreikuspen urbanistiko guztiekin; ez dator bat, esate baterako, udal-kanposantua



handitzeko lanekin, Munto sektorearen ordenamendu urbanistikoarekin, Arostegi tailerren ordenamendu urbanistikoarekin eta abar; aldiz, guztiz bat datoz Arozena inguruko ordenamendu urbanistikoan Etxeluze eraikina sartzearekin.

Beraz, Joseba Goiburuk adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa emango diola Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren lehen onarpenari, ez dituelako nahi Udalaren hurrengo agintaldiak mugatu edo hipotekatu.

Udal idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia idaztearen azken helburua honako hau dela: indarrean dauden Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak egokitzea indarrean dauden hirigintza-arauei, Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorraren 1. atalean —*in fine*— adierazten denari jarraituz (hitzez hitz): *Nolanahi ere, plan orokor eta arau subsidiario guztiak egokitu egin beharko zaizkie lege honen zehaztapenei, eta egokitzapenok behin betiko onartuko dira gehienez ere zortzi urteko epean.*

Ikusita udal arkitektoak 2011ko urtarrilaren 31n emandako txostena.

Ikusita administrazio orokorreko teknikariak 2011ko otsailaren 12an emandako txostena, udal idazkariak bere egiten duena, Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 173.1-b) artikuluan ezarritakoa betez.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzorde informatzaileak 2011ko martxoaren 29an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoak: Garcia (EB-B/A), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari. Plan Nagusia honako hauek idatzi dute: Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalba arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak.

2.- **JENDAURREAN JARTZEA** dokumentu hori eta bere eranskinak, hilabeteko epean, iragarki bana argitaratuz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintziako tirada handieneko egunkarian, interesatuek aukera izan dezaten alegazioak aurkezteko.

3.- **BERTAN BEHERA UZTEA** onarpenak, baimenak eta lizentziak indarrean dagoen erregimen urbanistikoa aldatzen den inguruetan, plana idatzi duen taldeak sortu dituen eta espedientean jasota dauden plano eta dokumentuen arabera. Bertan behera uzte horrek bi urteko iraupena izango du, gehienez.



### **3.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIKO ANTILLA HONDARTZAKO 1. ZENBAKIDUN ERAIKINA OKUPATZEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN KONTRATUA, BERTAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO.**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da. Zerbitzua adjudikatzeko lehiaketa publikora proposamen bakarra aurkeztu da: Iker Irazusta Tornorena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzaileak, kontratazio mahai gisa eratua, emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- **BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2011ko martxoaren 8an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

2.- **ADJUDIKATZEA** Iker Irazusta Tornori Orioko Antilla hondartzako 1. zenbakidun eraikina okupatzeko kontratua, Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko, kontzesio administratiboko erregimenpean. Kontzesioa hamar urterako ematen zaio eta urteko prezio edo kanona 31.200 eurokoa izango da. Adjudikaziodunak bere proposamen ekonomikoan adierazitako terminotan eman beharko du zerbitzua eta zorrotz bete beharko du baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orria.

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (29.500 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

### **4.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIKO ANTILLA HONDARTZAKO 2. ZENBAKIDUN ERAIKINA OKUPATZEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOARI BURUZ, BERTAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarrak, 2006ko abenduaren 26an egindako ohiko bilkuran, **BAIMENA EMAN ZUEN** Orioko Antillako hondartzako 2. zenbakidun eraikinean Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak, une hartan Berlosa jaunak ordezkatzeko zuten TXALUPA ORIO SL adjudikaziodunaren eskutan zeudenak, Xabier Urretabizkaia Lizarribarrek eta Jose Manuel de la Parra Arruabarrenak ordezkatzeko zuten MANDOEULIE SL sozietate merkantilaren eskutan lagatzeko, udalbatzarrak 1998ko otsailaren 20an egindako bilkuran onartutako Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboan Orrian ezarritakoaren arabera; erabaki horren arabera, zerbitzuak ustiatzeko eskubideen iraupen-epea 2018ko maiatzaren 30era artekoa zen, gehienez.

Udalbatzarrak, 2008ko martxoaren 31n egindako ohiko bilkuran, **BAIMENA EMAN ZUEN** Orioko Antillako hondartzako 2. zenbakidun eraikinean Udalak baimendutako



ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak, une hartan Jose Manuel de la Parra Arruabarrenak ordezkaten zuen MANDOEULIE SL adjudikaziodunaren eskutan zeudenak, Xabier Urretabizkaia Lizarribarren eskutan lagatzeko, udalbatzarrak 1998ko otsailaren 20an egindako bilkuran onartutako Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Orrian ezarritakoaren arabera; erabaki horren arabera, zerbitzuak ustiatzeko eskubideen iraupen-epea 2018ko maiatzaren 30era artekoa zen, gehienez.

Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikina okupatzeko kontzesio administratiboaren kontratazio publikoa arautzen duen baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orriaren 6. artikulua ezarritakoaren arabera eta 2007ko apirilaren 11n sinatutako kontratu administratiboak ezarritakoaren arabera, *Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko urteko kanona osorik ingresatuta izango da Orioko Udaleko Diruzaintzan dagokion urteko irailaren 30a baino lehen.*

Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko 2010eko kanona ordaintzeko epea (2010eko irailaren 30a) aspaldi pasa zen eta, gaurko egunez, Xabier Urretabizkaia Lizarribarek ez du Udal Diruzaintzan sartu inolako diru-kopururik —ez 2010eko kanonari dagokion 41.891,98 euroko diru-kopurua eta ez 38.296,60 euroko abala—, nahiz eta behin eta berriz eskatu zaizkion.

2007ko apirilaren 11n sinatutako kontratu administratiboaren zortzigarren klausulan, j) atalean, ezarritakoaren arabera, kontratua desagiteko arrazoi izango da, besteak beste, honako hau (hitzez hitz): *el impago del canon (tanto el principal como el complementario en su caso) en plazo superior a dos meses y medio*; hala ere, arrazoi horregatik kontratua desagiteko, aldez aurretik jakinarazi behar zaio adjudikaziodunari arau-haustearen berri eta dagokion udal organoak epe bat jarri behar dio arau-haustea zuzentzeko; egiten ez badu, orduan desagin ahal izango da kontratua.

Aurreko guztiagatik, egokia da 2007ko apirilaren 11n sinatutako kontratu administratiboa desagiteko espedientea hastea, gorago azalduta bezala, entitate horrek, behin eta berriz, ez dituelako bere obligazioak —ekonomikoak eta bestelakoak— bete; kontratuaren adjudikaziodunari horren berri eman beharko zaio, hamabost laneguneko epean bere eskubideen defentsan nahi dituen alegazioak aurkezteko.

Bukatzeko, azaldutako guztia ikusita, egokia da 2007ko apirilaren 11n sinatutako kontratu administratiboa desagitea eta, beraz, indarrrik gabe uztea Orioko Antillako hondartzako 2. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak lagatzeko udal baimena, erabaki honen azalpenean adierazitako obligazioak —ekonomikoak eta bestelakoak— behin eta berriz huts egin direlako; horrek ondorioak izango ditu, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orrian eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoaren arabera, **BALDIN ETA** Xabier Urretabizkaia Lizarribarek **EZ BADITU** egiten, goiko paragrafoan adierazitako 15 laneguneko epean, dagozkion diru-ordainketak Udaleko diruzaintzan: 2010eko kanonari dagokion 41.891,98 euroko diru-kopurua (BEZ barne) eta 38.296,60 euroko abala.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, hasitako espedientearen aurrekariak ikusita eta 2007ko apirilaren 11n sinatutako kontratu administratiboaren 8. klausularen eta baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orrian ezarritakoaren arabera, Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzaileak 2011ko martxoaren 29an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAI EZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]

1.- **ESPEDIENTEA HASTEA**, 2007ko apirilaren 11n sinatutako kontratu administratiboa desegiteko eta, beraz, indarrik gabe uzteko Orioko Antillako hondartzako 2. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak lagatzeko udal baimena, erabaki honen azalpenean adierazitako obligazioak —ekonomikoak eta bestelakoak— behin eta berriz huts egin direlako; horrek ondorioak izango ditu, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orrian eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

2.- Udalaren erabaki honen **BERRI EMATEA** Xabier Urretabizkaia Lizarribarri, **HAMABOST LANEGUNEKO** epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, aukera izan dezan alegazioak aurkezteko bere eskubideen defentsan edota zuzentzeko egindako hutsegite edo arau-haustekak.

3.- **ONARTZEA** 2007ko apirilaren 11n sinatutako kontratu administratiboa desegitea eta, beraz, indarrik gabe uztea Orioko Antillako hondartzako 2. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak lagatzeko udal baimena, kontratu horren klausuletan eta kontratazioaren baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orrian ezarritakoa aplikatuzetik eratoritzen diren udal eskumen guztiekin eta ondorio guztiekin, **BALDIN ETA** Xabier Urretabizkaia Lizarribarrek **EZ BADITU** egiten, aurreko atalean adierazitako 15 laneguneko epean, dagozkion diru-ordainketak Udaleko diruzaintzan: 2010eko kanonari dagokion 41.891,98 euroko diru-kopurua (BEZ barne) eta 38.296,60 euroko abala.

4.- **ONARTZEA** Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Orria, Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikina berriro okupatzeko eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontzesio administratiboaren kontratazioa arautuko duena; baldintza-orriaren laburpena honako hau da:

## 1.- Erakunde adjudikatzailea.

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

## 2.- Kontratuaren xedea.

- a) Kontratuaren xedea: Baldintza-orri honen xedea honako hau da: arautzea Orioko Antilla Hondartzako 2. zenbakidun eraikina okupatu eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontzesio administratiboaren kontratazio-baldintzak.



b) Kontratuaren iraupena: Kontratazio honen xedearen iraupenaren epea, guztira, hamar urtekoa izango da, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

### **3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.**

- a) Tramitazioa: Ohikoa.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Era: Lehiaketa.

### **4.- Gutxieneko kanona.**

Urteko gutxieneko kanona 29.500 eurokoa izango da, BEZ barne. Lizitatzailleek aukera izango dute kopuru hori hobetzeko.

### **5.- Bermeak.**

Behin betikoa: 29.500 €.

### **6.- Iragarki gastuak.**

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

### **7.- Dokumentazioa lortzeko.**

Baldintza-orria [www.oriora.com](http://www.oriora.com) webgunean eta Udaleko idazkaritzan eskuratu ahal izango da.

### **8.- Proposamenak aurkeztea.**

- a) Epea: Hogeita sei egutegiko egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.
- c) Tokia: Udaleko idazkaritza-kontu-hartzailletza. Herriko Plaza, 1. 20810 Orio.
- d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 8:30etik 14:30era.

### **9.- Proposamenen irekiera.**

- a) Tokia: Orioko Udala.
- b) Data: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo lanegunean; egun hori larunbatarekin egokitzen bada, data hurrengo lanegunera pasako da.
- c) Ordua: 12:00etan.





## **5.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 3. ZENBAKIDUN ERAIKINA OKUPATZEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN KONTRATUA, BERTAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO.**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da. Zerbitzua adjudikatzeko lehiaketa publikora proposamen bakarra aurkeztu da: Makazaga jaunak ordezkatzeko duen EUS GALERNA ARG SLrena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzaileak, kontratazio mahai gisa eratu, emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- **BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2011ko martxoaren 8an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

2.- **ADJUDIKATZEA** Makazaga jaunak ordezkatzeko duen EUS GALERNA ARG SLri Orioko Antilla hondartzako 3. zenbakidun eraikina okupatzeko kontratua, Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko, kontzesio administratiboko erregimenpean. Kontzesioa hamar urterako ematen zaio eta urteko prezio edo kanona 29.500 eurokoa izango da. Adjudikaziodunak bere proposamen ekonomikoan adierazitako terminotan eman beharko du zerbitzua eta zorrotz bete beharko du baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orria.

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (29.500 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

## **6.- LEHEN ONARPENEA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO BIDE PUBLIKOEN UDAL INBENTARIOARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Orioko bide publikoen inbentarioa Conchi Uriarte Seminariok eta Nekane Azarola Martinezek idatzi dute, Orioko Udalarenak diren bideei buruzko datuak jasotzeko eta horien inbentarioa egiteko. Ondasunen inbentarioa egin beharra eta horren edukiak zein izan behar duten honako arauetan du oinarria: Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubideko alorrean indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legea, eta Toki Entitateen Ondasunen Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.

Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta, talde mistoaren izenean, adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa emango duela, oso berandu jaso duelako Orioko bide publikoen udal inbentarioari dagokion dokumentazioa. Esaten du PDF formatuko dokumentazio hori atzoko egunez jaso zutela, 16:00etan, eta, kontuan





hartuta ez dutela nahiko denborarik izan gaia behar bezala aztertzeko, ezinezkoa zaiela dokumentua onartzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzorde informatzaileak 2011ko martxoaren 29an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Lasa (EA), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Conchi Uriarte Seminariok eta Nekane Azarola Martinezek idatzi duten Orioko bide publikoen udal inbentarioari.

2.- **JENDAURREAN JARTZEA** udal inbentario hori 30 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita, interesatuek aukera izan dezaten alegazioak aurkezteko; behin epe hori pasata, ez baldin bada alegaziorik aurkeztu, udal inbentario hori behin betikoz onartutzat joko da beste erabakirik hartu beharrik gabe.

3.- **JAKINARAZTEA** Udalaren erabaki hau, pertsonalki eta banan-banan, eragindako pertsona guztiei, aukera izan dezaten aztertzeko eta alegazioak aurkezteko.

Horrenbestez, udalbatzarrerera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**